


2012ko maiatzaren 17a, Internet Eguna

EAEko gazteen %98k Internet erabiltzen dute eta internauten %29k 15 ordu baino gehiago konektatzen dira astean

Internet Eguna dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) datu berri batzuk aurkezten ditu EAEko gazteen Interneten kontsumoari buruz. Datuok 2012ko martxoan EAEn 15 eta 29 urte bitarteko 1.500 gazteri egindako inkesta baten emaitza dira.


Datu horien arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %98k Internet erabiltzen dute. Ehuneko hori aurreko urteetako baino handiagoa da.




2012an EAEko gazteek eta [2011n Espainiako gazteek](#) izandako Interneten erabilera alderatuz gero, ikus dezakegu EAEn erabilera zertxobait handiagoa dela (%98 eta %92, hurrenez hurren).

Bestalde, alderatzen badugu Interneten erabilera EAEko gazteen artean eta [29 urtetik gorakoen artean](#), lehenengo artean askoz zabaldago dagoela adierazi dezakegu (%98 gazteen kasuan eta %55 helduen artean).

2012an Internet erabiltzen emandako asteko ordu kopurua ere dezente handitu dela aipatu beharra dago: 2000 urtean, astean 15 ordu baino gehiago konektatzen ziren internauta gazteak %3 ziren; 2012an, aldiz, %29 izatera pasatu dira.



Interneten emandako asteko ordu kopuruan gehien eragiten duten alderdiak ez dira sexua, adina edota ikasketak, baizik eta zeregin nagusia eta astia: ikasleak eta langabetuak, bai eta astegunetan 4 ordu libre baino gehiago dituztenak ere dira Interneten konektatuta ordu gehien ematen dituztenak.



Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

